



2023KO UZTAILAREN 3AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA

3. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 3an, arratsaldeko seiretan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ez ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Ana Azkoitia Urteaga andrea (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Sonia Vazquez Tejerina. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Igor Isusquiza García J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Asier Altuna Epelde J. (EH BILDU).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Itziar Larrañaga Arrizabalaga A. (EH BILDU).
Jon Bastarrika Salegi J. (EH BILDU).
Nagore Orbea Sánchez A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).
Nerea Machado Iparraguirre A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).
Janire Astigarraga Larrañaga A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Unai Urkijo Rodriguez, Udal Idazkaria.

1.- UDALBATZA PLENOEN OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA ERABAKITZEA.

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

“1.- UDALBATZA PLENOEN OHIKO BILKURAK

OHIKO PLENOAK

- Hilabeteko maiztasunaz (abuztua eta abendua ezik) lehentasunez azkeneko **asteazkenetan** egitea proposatzen da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Ordua: **arratsaldeko 18:00ak.**
- Erreferentzia bezala honako datak izango dira:

2023	2024	2025	2026	2027
	Urtarrila			Urtarri
31		Urtarrila 29	Urtarrila 28	la 27
	Otsaila			Otsail
28		Otsaila 26	Otsaila 25	a 24
	Martxoak 26**	Martxoak	Martxoak 25	oak 31
	Apirila	Apirila 30		Apirila
24			Apirila 29	28
	Maiatza			Maiatz
k 29		Maiatzak 28	Maiatzak 27	ak 26
	Ekainak			
26		Ekainak 25	Ekainak 24	
Uztailak	Uztailak			
26	24	Uztailak 30	Uztailak 29	
Iraila 27	Iraila 25	Iraila 24	Iraila 30	
Urria 25	Urria 30	Urria 29	Urria 28	
Azaroak 28*	Azaroak			
	27	Azaroak 26	Azaroak 25	

*Asteartea. San Andres bezpera.

**Asteartea. Aste Santuak.

Alkateak adierazi du proposatzen duela Osoko Bilkurak, lehentasunez, hileko azken asteazkenetan egitea, arratsaldeko 18:00etan alegia. Horretarako, egutegi orientagarri bat bidali egin da proposamenarekin batera.

Jose Joakinek hitza hartu eta jakinarazi du Azkoitia Bai Herri Plataformak garbi utzi zuela, Antolakuntza Pleno honetan erabakitzen zena bere osotasunean hartuko zuela. Hala ere, gutxieneko batzuk markatu zituztela adierazi du eta nola horiek ez diren errespetatu haien kontrako botoa iragarri du.

Iraitzek hitza hartu eta komentatu du akordioak hartzera irekita daudela. Azpimarratu du EH Bilduk soldaten %25eko jaitziera proposatzen zuela, baina



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

azkenean EAJ-rekin adostutako akordioari esker Udal korporazioko kideen soldaten %14a jaitea adostu egin dela. Hori dela eta, puntu horretan abstenituko direla adierazi du.

Alkateak, eskerrak eman dizkie EH Bilduko kideei negoziaketetan marra gorririk gabe parte hartzeagatik. Azkoitia Baiko kideei leporatu die beraiek adierazitako "gutxiengo batzuk" negoziatzeko direla, hortaz, proposatutakoa onartzen ez bada ezin dela beraiekin negoziatu. Alkateak gogorarazi du legealdi honetan alderdi guztiekin akordioak adostera behartuta egongo direla. Horrenbestez beste alderdiko ordezkariak negoziatzeko borondatea izatea eskatu die.

Jose Joakinek gogorarazi du Azkoitia Bai-k prest agertu zela 4 alderdiko gobernu osatzeko eta negoziatzeko.

Alkateak Jose Joakini erantzun dio beraiek proposatutako gobernu biderazina zela, horren adibide, gaurko Osoko Bilkurara ekarritako gaiak adosteko zailtasuna.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak Udalbatza Plenoen ohiko bilkuren maiztasuna onartzea gehiengoz erabaki du.

2.- BATZORDE INFORMATZAILEEN ERAKETA.

Honela dio proposamenak:



“2.- BATZORDE INFORMATIBOEN ERAKETA:

2.1. Ohiko Batzorde Informatiboak

Alkatezaren proposamenaren arabera, Azkoitiko Udaleko Batzorde Informatzaile Iraunkorrak honako hauek izango dira:

- **ANTOLAKUNTZA: OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, PARTE-HARTZEA, KOMUNIKAZIOA, HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ), MEMORIA HISTORIKOA ETA ONDAREA.**
- **GIZARTEA: GIZARTE ZERBITZUAK, INTEGRAZIOA, BERDINTASUNA, ETA PREBENTZIOA.**
- **LURRALDEA: HIRIGINTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, SEGURTASUNA, ENPLEGUA-IB, MERKATARITZA ETA TURISMOA.**
- **HERRITARRAK: KULTURA, GAZTERIA, KIROLAK, FESTAK, EUSKARA ETA HEZKUNTZA.**

2.2. Batzorde Informatibo Bereziak:

- **KONTUEN BATZORDE BEREZIA**, urteko kontuak aztertu eta diktaminatzeko xedearekin. Antolakuntza batzordeko kideek osatuko dute.”

Alkateak bozketa hau bi puntutan egitea proposatu du; alde batetik, Ohiko Batzordeen eraketa eta beste aldetik, Kontuen Batzorde Berezien eraketa.

Jose Joakinek hitza hartu du eta adierazi du batzordeak ez direla eratu/antolatu behar gobernuan sartu nahi diren pertsonaren arabera. Hori dela eta uste du ez duela zentzurik Memoria Historikoa eta Ondarea kulturatik bereiztea, hortaz, haien kontrako botoa iragarri du.

Bozketen emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak batzorde informatzaileen eraketa onartzea gehiengoz erabaki du.

3.- BATZORDE INFORMATZAILEEN OSAKETA.

Proposamena honakoa da:

“3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO OSAKETA:

Batzorde Informatiboak ondoko era honetan osatzea proposatzen da:

- **EAJ/PNV:** **3 kide**
- **EH Bildu:** **3 kide**
- **AZKOITIA BAI ELKARREKIN:** **2 kide**
- **PSE-EE:** **kide 1**

Talde bakoitzak batzorde bakoitzaren kideak proposatu ditu eta hauek izango dira:

***ANTOLAKUNTZA BATZORDEA**

EAJ	TITULARRA	ORDEZKOA
	Ana Azkoitia	Sonia Vazquez
	Sonia Vazquez Juan Bautista Mendizabal	Igor Isusquiza Mertxe Zubillaga
EH Bildu	Iraitz Otaño	Jon Bastarrika
	Asier Altuna	Nagore Orbea
	Itziar Larrañaga	Ainara Goenaga
Azkoita Bai	Jose Joakin Etxaniz	Nerea Machado
	Janire Astigarraga	Nerea Machado
PSE-EE	Janire Igoa	

ESKUae564484-6ce3-4847-a5e0-545adcc20919



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

***LURRALDEA BATZORDEA**

	TITULARRA	ORDEZKOA
EAJ	Imanol Arrizabalaga Ana Azkoitia Juan Bautista Mendizabal	Ana Azkoitia Marijose Arregi Mertxe Zubillaga
EH Bildu	Iraitz Otaño Asier Altuna Jon Bastarrika	Itziar Larrañaga Nagore Orbea Ainara Goenaga
Azkoita Bai	Jose Joakin Etxaniz Nerea Machado	Janire Astigarraga Janire Astigarraga
PSE-EE	Janire Igoa	

***HERRITARRAK BATZORDEA**

	TITULARRA	ORDEZKOA
EAJ	Sonia Vazquez Marijose Arregi Igor Isusquiza	Igor Isusquiza Juan Bautista Mendizabal Mertxe Zubillaga
EH Bildu	Iraitz Otaño Ainara Goenaga Nagore Orbea	Jon Bastarrika Asier Altuna Itziar Larrañaga
Azkoita Bai	Jose Joakin Etxaniz Nerea Machado	Janire Astigarraga Janire Astigarraga
PSE-EE	Janire Igoa	

***GIZARTEA BATZORDEA**

	TITULARRA	ORDEZKOA
EAJ	Sonia Vazquez Mertxe Zubillaga Marijose Arregi	Ana Azkoitia Juan Bautista Mendizabal Igor Isusquiza
EH Bildu	Iraitz Otaño Asier Altuna Itziar Larrañaga	Nagore Orbea Jon Bastarrika Ainara Goenaga



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoita Bai	Jose Joakin Etxaniz Janire Astigarraga	Nerea Machado Nerea Machado
PSE-EE	Janire Igoa	

Jose Joakinek adierazi du, aurreko puntuan bezala, EAJ-k sartu behar dituen pertsonaren arabera hartzen dituela erabakiak. Horregatik haien kontrako botoa iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak batzorde informatzaileen osaketa onartzea gehiengoz erabaki du.

4.- BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA ERABAKITZEA.

Honako proposamena aurkeztu du Alkate andreak:

“4.- OHIKO BATZORDE INFORMATIBOEN BILKUREN MAIZTASUNA

Batzorde Informatiboek gutxienez hilean behin bilduko dira ohiko izaeraz, **abuztuan ezik.**

Lehentasunez, Gizartea eta Herritarrak batzordeak, Plenoko astea baino bi aste lehenago, asteazkenetan izango dira, 16:30 eta 17:30tan hurrenez hurren.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lurralde eta Antolakuntza batzordeak, Plenoko astea baino bi aste lehenago, ostegunetan izango dira, 16:30 eta 17:30tan hurrenez hurren.

Erreferentzia bezala honako datak izango dira:

2023	2024	2025	2026	2027
	Urtarrila 17-18	Urtarrila 15-16	Urtarrila 14-15	Urtarrila 13-14
	Otsaila 14-15	Otsaila 12-13	Otsaila 11-12	Otsaila 10-11
	Martxoak 13-14	Martxoak 12-13	Martxoak 11-12	Martxoak 17-18
	Apirila 10-11	Apirila 16-17	Apirila 15-16	Apirila 14-15
	Maiatzak 15-16	Maiatzak 14-15	Maiatzak 13-14	Maiatzak 12-13
	Ekainak 12-13	Ekainak 11-12	Ekainak 10-11	
Uztailak 12-13	Uztailak 10-11	Uztailak 16-17	Uztailak 15-16	
Iraila 13-14	Iraila 11-12	Iraila 10-11	Iraila 16-17	
Urria 10-11*	Urria 16-17	Urria 15-16	Urria 14-15	
Azaroak 15-16	Azaroak 13-14	Azaroak 12-13	Azaroak 11-12	

*Asteartea-Asteazkena

Alkateak adierazi du Batzorde Informatiboek gutxienez hilean behin bilduko direla ohiko izaeraz, abuztuan ezik.

Lehentasunez, Gizartea eta Herritarrak batzordeak, Plenoko astea baino bi aste lehenago, asteazkenetan izango dira, 16:30 eta 17:30tan hurrenez hurren.

Lurralde eta Antolakuntza batzordeak, Plenoko astea baino bi aste lehenago, ostegunetan izango dira, 16:30 eta 17:30tan hurrenez hurren.

Erreferentzia bezala Excell taula erantsita bidali da.

Jose Joakinek aipatu du akordioa bere osotasunean hartuko zutela, eta akordiorik lortu ez dutenez, antolakuntza honen aurka bozkatuko dutela iragarri du.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak batzorde informatzaile iraunkorren ohiko bilkuren maiztasuna onartzea gehiengoz erabaki du.

**5.- UDAL KORPORAZIOAREN ORDEZKARIEN IZENDAPENA EGITEA
BESTE ORGANO ETA UDALEZ KANPOKO ERAKUNDEETAN.**

Honela dio Alkatezaren proposamenak:

“5.- UDAL ORDEZKARITZA BESTE ORGANO ETA ERAKUNDEETAN.

5.1.: ZUBIAURRE FUNDAZIOA :

Patronatuko kideak:	9*
EAJ/PNV:	Ana Azkoitia Sonia Vazquez Igor Isusquiza
BILDU:	Iraitz Otaño Nagore Orbea Ainara Goenaga
AZKOITIA BAI ELKARREKIN:	Jose Joakin Etxaniz Nerea Machado
PSE/EE:	Janire Igoa

*Lehendakaria: Azkoitiko udaleko Alkatea.

*Lehendakariordea: Azkoitiko udaleko Lehenengo Alkateordea.



5.2: IRAURGI LANTZEN S.A.

Azkoitiko udaleko ordezkariak, Alkate-Lehendakariak eta Talde Politiko bakoitzetik ordezkari banak osatuko dute.

Alkatea: Ana Azkoitia

EAJ/PNV: Sonia Vazquez

BILDU: Asier Altuna

AZKOITIA BAI ELKARREKIN: Jose Joakin Etxaniz

PSE-EE: Janire Igoa

5.3: UROLA ERDIALDEKO MANKOMUNITATEA

Estatutuetan xedatutakoaren arabera, Azkoitiko udalak 3 ordezkari izendatu behar ditu. Hauek udalbatza plenoak izendatuko ditu dagozkion bozketa eginez, bozketa horretan zinegotzi bakoitzak BI ORDEZKARI proposatu ahal izango dituelarik. Bozketa bakarra egin behar da eta emaitzen arabera ordezkariak aukeratuak izango dira.

EAJ/PNV: Ana Azkoitia

EH Bildu: Asier Altuna

AZKOITIA BAI ELKARREKIN: Jose Joakin Etxaniz

5.4: UROLA ERDIKO LAPATX S.A.

Urola Erdiko Mankomunitateari dagokio Azkoitiko Udaleko bi ordezkariak izendatzea. Beraz, bozketa Mankomunitatearen Batzarrean egingo da.

5.5: ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOA

Estatutuen 13. artikulua: Udala (orain arte Alkatea), Kukuerra Aterpetxea S.L. Antonio Oteizaren ordezkaria, eta udalak izendaturiko 4 ordezkari. Horietaz gain, 9 kide arte, beste pertsona fisiko edo juridikoak.

Patronatuko kideak:

Alkatea: Ana Azkoitia

EAJ: Sonia Vazquez

EH Bildu: Iraitz Otaño

AZKOITIA BAI ELKARREKIN: Jose Joakin Etxaniz

PSE-EE: Janire Igoa



5.6: UROLAKO INDUSTRIALDEA S.A.

Ana Azkoitia

5.7: XABIER MUNIBE IKASTOLA eta HAURRESKOLA

Marijose Arregi

5.8: AZKOITIA BHI

Marijose Arregi

5.9: IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA

Marijose Arregi

5.10: INGURUGIRO ETXEA FUNDAZIOA

Imanol Arrizabalaga

5.11: UR-PARTZUERGOA

Ana Azkoitia

5.12: URKOME (Mendi Nekazaritzako Elkarte)

Imanol Arrizabalaga

Alkateak adierazi du puntu honetan Udal Korporazioaren ordezkarien izendapena beste organo eta erakundeetan izendatzea dela.

Jose Joakinek jakinarazi du beraiek ez direla beste alderdien antolakuntzan inoiz sartu, baina udal antolakuntzarekin ados ez daudenez kontrari bozkatuko dutela adierazi du.

Bozkeren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak beste organo eta udalez kanpoko erakundeetan Udal korporazioaren ordezkarien izendapenak onartzea gehiengoz erabaki du.

6.- DEDIKAZIOEN ERREGIMEN EKONOMIKOA, BESTE HAUTATUEN ASISTENTZIENGATIKO DIETAK ETA TALDE POLITIKOEN DIRU-IZENDAPENAK ERABAKITZEA.

Alkate andreak honako proposamena aurkeztu du:

“6.- HAUTATUEN ORDAINSARI ETA ASISTENTZIEN ARAUBIDEA. TALDE POLITIKOEN DIRU-IZENDAPENAK .

1gn: DEDIKAZIOEN ERREGIMEN EKONOMIKOA

- I. **Alkatea:** Dedikazio eskusiboa, %100ekoa. Ordainsaria: Eusko Jaurlaritzaren Zuzendariari dagokiona - %10: 70.136,01€ urtean. Eraginkortasun data: Onartzen denetik aurrera.
- II. **Zinegotziak:**
 - **Gizartea eta Herritarrak Batzordeko Lehendakaria. Gizarte Zerbitzuak, integrazioa, Kultura eta Gazteria zinegotzi delegatua.** Dedikazio %90. Ordainsaria: 46.526,40€ urtean.
 - **Lurraldea Batzordeko Lehendakaria. Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuak zinegotzi delegatua.** Dedikazio %100. Ordainsaria: 51.696,06€ urtean.
 - **Berdintasuna eta Prebentzioa zinegotzi delegatua:** Dedikazio %50. Ordainsaria: 25.848,03€ urtean.
 - **Kirola eta Festak zinegotzi delegatua:** Dedikazio %50. Ordainsaria: 25.848,03€ urtean.
 - **Turismoa, Ondarea, Memoria historikoa eta Azkoitia 700 proiektua zinegotzi delegatua:** Dedikazio %50. Ordainsaria: 25.848,03€ urtean.

Eraginkortasun data: Onartzen denetik aurrera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

III. Oposizioa:

- **EH Bildu** taldeko zinegotzi liberatua: Pertsona bat %100eko dedikazioa. Ordainsaria: 46.526,45€ urtean.
- **Azkoitia Bai Elkarrekin** taldeko zinegotzi liberatua: Pertsona bat %50eko dedikazioa. Ordainsaria: 23.273,23€ urtean.
- **PSE-EE** taldeko zinegotzi liberatua: Pertsona bat %15eko dedikazioa. Ordainsaria: 6.978,97€ urtean.

Eraginkortasun data: Talde bakoitzeko bozeramialeak pertsonaren izena Udalean aurkezten duenaren hurrengo egunetik aurrera.

Ordainsariak Eusko Jaurlaritzaren Zuzendarien ordainsariekin bat eguneratuko dira.”

Alkateak proposatutako kide guztien liberazioak, erregimen ekonomikoa eta dedikazioak azaldu ditu.

Jose Joakinek hitza hartu du eta aipatu du beraiek beti defendatu dutela liberazio denek ordainsari bera izan beharko luketela. Bestalde, gutxienez %20ko jaitsiera izango ez balu ez luketela onartuko esan du, eta hori ere betetzen ez denez, kontra bozkatuko duela aipatu du.

Iraitzek aipatu du EH Bilduk soldaten %25eko jaitsiera proposatzen zuela, baina azkenean EAJ-rekin adostutako akordioari esker Udal korporazioko kideen soldaten %14a jaitea adostu egin dela. Akordio horrekin aurreko soldatekin korporazioko kideak jarraitzea ekiditea lortu dela azpimarratu du. Hori dela eta puntu horretan abstenituko direla adierazi du.

Jose Joakin, Iraitzek esandakoarekin ados ez dagoenez, Idazkariari galdetu dio ea adierazitakoa zuzena ote den.

Idazkariak zehaztu du Alkatea eta Oposizio Zinegotziaren karguei jarraipena ematea posiblea izango litzatekeela baina ez beste kargu guztiei.

Iraitzek adierazi du bi kargu horiei buruz ari zela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkateak, amaitzeko, adierazi du interpretazio ugari daudela gai honi buruz.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Abstentzioak: Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak hautatuen dedikazioen erregimen ekonomikoa onartzea gehiengoz erabaki du.

Beste hautatuen asistentziagatiko dietei dagokionean honakoa da proposamena:

“2gn: ASISTENTZIENGATIKO DIETAK

Dedikazio eskusiboa edo partziala ez duten zinegotziek, honako dieta hauek eskuratuko dituzte, Udalbatza Pleno, Tokiko Gobernu Batzar eta Batzorde Informatzaileetako bilkuretara joateagatik:

Plenoa: 100 €

Batzordeak eta Tokiko Gobernu Batzarra: 50 €

Urteko gehieneko kopurua: 5.000€ zinegotziko.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak hautatuen asistentziengatiko dietak onartzea gehiengoz erabaki du.

Talde politikoen diru-izendapenen proposamenak honela dio:

“3gn: TALDE POLITIKOEN DIRU-IZENDAPENAK

Udal talde politikoen diru-izendapenak honako hauek izatea proposatzen du Alkate honek:

UDAL TALDE POLITIKO BAKOITZEKO: hileko 570 €
TALDEKO IZENDAPENA ZINEGOTZI BAKOITZEKO: hileko 175€”

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak talde politikoen diru-izendapenak onartzea gehiengoz erabaki du.



7.- BEHIN BEHINEKO LANPOSTUEN KOPURU, EZAUGARRIAK ETA ORDAINSARIAK ERABAKITZEA.

Honela dio proposamenak:

“7.- BEHIN-BEHINEKO EDO EBENTUALAK DIREN LANPOSTUEN KOPURU, EZAUGARRI ETA ORDAINSARIAK FINKATZEA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 104.1 artikuluan xedaturikoa betez, 104 bis artikulua zehaztutako mugaren barnean, eta ikusita abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa 30.4 artikulua behin-behineko pertsonala ere sartuta egon beharko dela Lanpostuen Zerrendan, Azkoitiko udaleko behin-behineko (ebentuala) pertsonalaren kopuru, ezaugarri eta ordainsariak ondoko orrian adierazten dena izatea proposatzen da:

%100 jarduna	Alkatearen idazkaria	41.444,62€
%100 jarduna	Komunikazio arduraduna	41.444,62€

Ikusita, Alkatearen Idazkariari eta Komunikazio arduradunari dagokion lanpostua 2023ko Lanpostuen Zerrendan (2022ko abenduaren 22an hasieraz onartu eta GAO n argitaratua 2023ko otsailaren 22ko datan), jasota dagoela, Alkateak izendapena egin ahal izango du bestelako izapiderik gabe.”

Jose Joakinek ondokoa dio: *“Gure taldea beti agertu izan da udal komunikazioaren aurka, herritarraren kontura, gobernuan egon diren alderdi denek propaganda egiteko erabili izan dutelako beti, beraz, ezetz bozkatzen jarraituko dugu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi eta Nagore Orbea Sanchez.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Abstentzioa: Janire Igoa Merino.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak behin behineko edo ebentualak diren lanpostu kopuru, ezaugarri eta ordainsariak finkatzea onartzea gehiengoz erabaki du.

8.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA:

Honako Alkatetza Dekretu hauen berri eman da:

“ALKATETZA DEKRETUA

ANA AZKOITIA URTEAGAK, Azkoitiko Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.a) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, eta aipatu 7/1985 Legearen 21.2 artikulua, Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuaren 41.3 eta 46.1 artikuluek eta Udal Erregelamendu Organikoaren 4. artikulua diotenaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENA.- Azkoitiko Udaleko Alkateordeak hurrenez hurren izendatzea, indarreko arautegiak ematen dizkien ahalmen guztiekin:

- *Lehen Alkateordea:* Sonia Vázquez Tejerina A.
- *Bigarren Alkateordea:* Imanol Arrizabalaga Larrañaga J.

BIGARRENA.- Xedapen honen berri zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara eman dadila.

HIRUGARRENA.- Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu Liburuan transkribatuko da, eta bere dataren hurrengo eguneko eragina izango du.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, birjarpen errekurtsua tartekatuz datatik kontatzen hasita.

Agindu eta izenpetzen duena Alkateak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, Azkoitian, 2023ko ekainaren 28an.”

“ALKATETZA DEKRETUA

ANA AZKOITIA URTEAGAK, AZKOITIKO UDALEKO ALKATEAK, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.3 eta 23.4 artikuluek, eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen dituen azaroaren 28ko 2.568/86 Errege-Dekretuko 43. artikulua ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, aipaturiko Erregelamenduko 114. eta hurrengo artikuluetan eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluan xedaturikoa kontutan harturik, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENIK.- Ondoan aipatzen diren Zinegotzien eskuetan, Dekretu honetan aipatzen diren ahalmenak delegatzea:

1.- Delegazioen titularrak eta arloak (orokorrak eta bereziak):

- 1. Gizartea Batzordeko Lehendakaria.** (Delegazio orokorra: Gizarte Zerbitzuak eta Integrazioa: **Sonia Vazquez Tejerina A.**)

Delegazio orokor horrek barne hartuko du baita, delegazio bereziaren objektu direnak:

Berdintasuna eta Prebentzioa (Delegazio berezia: **Maria Mercedes Zubillaga Albizu A.**)

Egoitza proiektua. (Delegazio berezia: **Jose Joakin Etxaniz Peña. J**)

- 2. Herritarren Batzordeko Lehendakaria:** (Delegazio orokorra: Kultura eta Gazteria: **Sonia Vazquez Tejerina A.**)

Delegazio orokor horrek barne hartuko du baita, delegazio bereziaren objektu direnak:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kirola eta Festak (Delegazio berezia: **Igor Isuskiza Garcia J.**)

Euskara eta Hezkuntza (Delegazio berezia: **Mari Jose Arregi Etxeberria A.**)

3. **Lurralde Batzordeko Lehendakaria.** (Delegazio orokorra: **Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuak: Imanol Arrizabalaga Larrañaga J.**)

Delegazio orokor horrek barne hartuko du baita, delegazio bereziaren objektu direnak:

Ingurumen mahaia (Delegazio berezia: **Jose Joakin Etxaniz Peña J.**)

Batzordearen barne sartzen den Delegazio berezi hau, delegazioa orokorretik kanpo gelditzen da:

Turismoa (Delegazio berezia: **Juan Bautista Mendizabal Juaristi J.**)

4. **Antolakuntza Batzordea**

Barne hartzen ditu honako zerbitzuak, delegazio bereziaren objektu direnak:

Ondarea, Memoria historikoa eta Azkoitia 700 proiektua (Delegazio berezia: **Juan Bautista Mendizabal Juaristi J.**)

Aurrekontu parte-hartzaileak (Delegazio berezia: **Jose Joakin Etxaniz Peña J.**)

2.- **Delegazio Orokorra duten zinegotzien zereginak:** Honako ahalmen hauek izango dituzte:

- Udalbatza Osoko Bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren eguneko aztergai-zerrendetan sartzeko gaiak Alkateari proposatzea.
- Bere ordezkartzaren eremuaren barne, ordenantzak, erregelamenduak, eta udal akordioak bete daitezen agintzea.
- Dagokion eremuaren egituraketa eta antolaketa proposamena egitea Alkateari.
- Bakoitza bere eremuko obra, hornikuntza, zerbitzu eta, orokorrean, kontratazio-espedienteetan kontratazio-organoa izatea, beti ere Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legean arauturiko kontratu txikien kopuruen barne (15.000 euro gehi BEZ baino zenbateko baxuagoa dutenak, zerbitzu eta hornikuntzei dagokionean, eta 40.000 euro gehi BEZ baino baxuagoa obrei dagokionean), zera da, kontratu txikiak ebazteko eta horietatik eratorritako gastuak onartzeko ahalmena izatea, beti ere Kontratazioko Legeriaren xedapenak kontutan harturik.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Diru laguntzak eman, eta, orokorrean, ohiko funtzionamenduak sorturiko gastuak onartzea, bere eremuari atxikita direnean, 12.000 €ko kopurura arte, honako izapideak kontutan hartuz:
 - Edozein inizatiba gastu onartu ahal izateko, aurrekontuetan behar adinako zuzkidura izan behar du.
 - Erabakitako gastuaz informazioa emango dio Alkatetzari.
- Bakoitzak bere eremuko gaietan era guztietako diru-laguntzak eskatzea.
- Dagokion eremuko aurrekontuen aurreproiektua garaiz prestatzea, finkaturiko epean udalak Aurrekontuak onartu ahal ditzan.
- Delegaturiko eremuari loturiko baliabide fisiko eta giza baliabide guztiak sustatu, koordinatu eta kontrolatzea, udal helburuak hobeto bete ahal izateko.
- Bere lan eremuaren barne sortzen diren gai arrunt eta tramitezko guztiak kudeatzea, dagozkion erabakiak hartuz.
- Proiektuak onartzea, bakoitzaren eremuari atxikitakoak direnean.

3.- Delegazio berezia duten zinegotzien zereginak: Delegazio hauek dituzten zinegotziak barne hartzen dituzten zerbitzuen inguruko barne antolaketa eta kudeaketa aurrera eramateko ahalmena izango dute.

Hori horrela, honako eskumenak izango dituzte:

- Udalbatza Osoko Bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren eguneko aztergai-zerrendetan sartzeko gaiak gaiaren arabera delegazio orokorra duen zinegotziari proposatzea.
- Bere ordezkartzaren eremuaren barne, ordenantzak, erregelamenduak, eta udal akordioak betetzeko beharrezkoak diren kudeaketak aurrera eramatea.
- Dagokion eremuaren egituraketa eta antolaketaren proposamena egitea gaiaren arabera delegazio orokorra duen zinegotziari.
- Dagokien zerbitzuen inguruko aurrekontuen aurreproiektua garaiz prestatzea, eta honen berri ematea gaiaren arabera delegazio orokorra duen zinegotziari.
- Delegaturiko eremuari loturiko baliabide fisiko eta giza baliabide guztiak sustatu, koordinatu eta kontrolatzea, udal helburuak hobeto bete ahal izateko.
- Bere lan eremuaren barne sortzen diren gai arrunt eta tramitezkoak kudeatzea.

BIGARREN.- Erabakitako Delegazioen Araubidea honako hau izatea:

- Alkateari dagokio zinegotzi delegatuen jarduera koordinatzea eta haien arteko eskumen arazoak ebaztea. Delegazio berezia duten zinegotzien kasuan, beren gaiak barne hartzen dituen delegazio orokorra duenari ere badagokio hauen jarduera kontrolatzea eta haien arteko eskumen arazoak ebaztea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Ordezkaritzaren eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskuduntzak eta bere titularrak ezingo ditu beste zinegotzi edo organoren esku utzi.
- Zinegotzi delegatuek erabilitako eskuduntzen berri emango diote Alkateari beharrezkoa den maiztasunarekin. Delegazio bereziak dituztenen kasuan, informazio hori eman beharko diote beren gaiei dagokien delegazio orokorra duen zinegotziari.
- Izan daitezkeen gai garrantzitsu edo gatazkatsuetan erabaki bat hartu aurretik, zinegotzi delegatuak alkatearekin kontsultatuko du. Delegazio bereziak dituztenen kasuan, beren gaiei dagokien delegazio orokorra duenari kontsultatuko diote, lehendabizi.
- Ordezkaritzak ez du epemugarik, eta iraugo du ezeztatu arte. Alkatetza honek bere agintaldia amaitu arte edo zinegotzi delegatuek espresuki bere karguari uko egin arte, eta, kasu guztietan, legealdia amaitu arte irau egingo du.
- Alkatetza honek, eskuduntza emate hau aldatu edota ezeztatu ahal izango du, hala irizten dionean. Alkateak eskuordetutako eskumenak edozein unetan bereganatu ahal izango ditu, egokitzat hartzen duen zabaltasunez. Eskuordetutako agintariak emaniko ebazpenak, ekintza administratiboak ofizioz berrikusteko aurreikusitako moduan berrikusi ahal izango dira.
- Zinegotzi delegatuak bere eskumen eremuko gaietan emandako ebazpen administratiboen testuan agertu behar da ebazpena delegazioz emanak direla, eta, delegatu gabeko gaietan, Alkateak emandako ebazpenaren balio bera izango dute.
- Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Kasu guztietan Alkate-Lehendakariak ebatziko ditu aipaturiko errekurtsoak.
- Zinegotzi delegatua ez dagoenean, ordezkaritza eman gabe dagoenean, gaixorik dagoenean edo aritzeko beste edozein ezintasuna duenean, Alkatetzak, eskuduntzen jatorrizko titularra den aldetik, bere gain hartuko ditu, zuzenean eta automatikoki, delegatutako eskuduntzak, hartarako berariaz ebazpenik eman gabe.
- Delegazio bereziak dituzten zinegotziek ez dute ahalmenik izango hirugarrenei eragiten dien egintza administratiboak ebazteko, eta gaiaren arabera delegazio orokorra duen zinegotziaren gidaritza eta kontrolpean jardungo dute.

HIRUGARREN.- Dekretu honen berri dagokien zinegotziei ematea, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotzi bakoitzak onartu duela ulertuko da, Dekretu hau jakinarazi eta hurrengo hiru eguneko epean ez badu ezer adierazten haren aurka.

LAUGARREN.- Dekretu honen berri Osoko Bilkurari ematea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta udaletxeko Iragarki Taulan jartzea.

BOSTGARREN.- Dekretu hau Dekretuen Liburuan transkribatzea, Hirugarren atalean xedaturiko epean indarrean sartuko delarik.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, birjarpen errekurtsoa tartekatatu zuen datatik kontatzen hasita.

Agindu eta izenpetzen duena Alkateak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, Azkoitian, 2023ko ekainaren 30ean.”

“ALKATETZA DEKRETUA

ANA AZKOITIA URTEAGAK, Azkoitiko Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.b) artikulua xedatutako kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, eta aipatu 7/1985 Legearen 23.1 artikulua, Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuaren 41.3 eta 52.1 eta 2 artikuluek eta Udal Erregelamendu Organikoaren 5. artikulua diotenaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENA.- Ondoan adierazten diren zinegotziak Azkoitiko Udaleko Toki Gobernu Batzarreko kide gisa izendatzea, indarreko arautegiak ematen dizkien aholkufuntzioarekin: Sonia Vazquez Tejerina A., Imanol Arrizabalaga Larrañaga J., Iraitz Otaño Mugika J., Jose Joakin Etxaniz Peña J. eta Janire Igoa Merino A.

BIGARRENA.- Xedapen honen berri zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara eman dadila.

HIRUGARRENA.- Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu-Liburuan transkribatuko da, eta bere dataren hurrengo eguneko eragina izango du.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.



ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, birjarpen errekurtsua tartekatuz datatik kontatzen hasita.

Agindu eta izenpetzen duena Alkate Jaunak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, Azkoitian, 2023ko ekainaren 28an.”

9.- UDAL TALDE POLITIKOEN ERAKETA ETA HAIEN BOZERAMAILEEN IZENDAPENAREN BERRI EMATEA.

Azkenik, Alkate andreak ondorengo udal talde eta bozeramaileen berri eman du:

“UDAL TALDE POLITIKOEN ERAKETA ETA BOZERAMAILEEN IZENDAPENAK

Honako Udal taldeen eraketa eta bozeramaileak proposatu dira:

EAJ-PNV UDAL TALDEA

Ana Maria Azkoitia Urteaga
Sonia Vazquez Tejeria
Imanol Arrizabalaga Larrañaga
Maria Jose Arregui Echeverria
Igor Isusquiza García
Maria Mercedes Zubillaga Albizu
Juan Bautista Mendizabal Juaristi

Bozeramailea: Maria Jose Arregui Echeverria



EH BILDU UDAL TALDEA

Asier Altuna Epelde
Ainara Goenaga Andueza
Iraitz Otaño Mugica
Itziar Larrañaga Arrizabalaga
Jon Bastarrika Salegi
Nagore Orbea Sanchez

Bozerramailea: Asier Altuna Epelde

AZKOITIA BAI - ELKARREKIN UDAL TALDEA

José Joaquín Etxaniz Peña
Nerea Machado Iparraguirre
Janire Astigarraga Larrañaga

Bozerramailea: José Joaquín Etxaniz Peña.

PSE-EE (PSOE) UDAL TALDEA

Janire Igoa Merino

Bozerramailea: Janire Igoa Merino.”

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, Alkate andreak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak laurden gutxi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ALCA0001-AKTA/ACTA ()